

*Artikuluaren gaia Nafarroako Administrazio Publikoetako hizkuntz normalizazioa da. Hau da, euskararen erabilera Administrazioarekiko harremanetan eta Administrazioen artean, eta erabilera horretarako eskubidearen bermeak. Aztertu egiten dira euskarak Nafarroan duen egoera, gaiaren gaineko legezko xedapenak, Euskarari buruzko Legea eta 135/1994 F.D. batez ere —analizatu eta baloratu egiten dira, baita haien ondorioak ere— eta lorpen eta arazo nagusiak ikusten dira, eta azkenik, etorkizunerako proposamen bat egiten da euskararen erabilera Administrazioan normalizatzeko. Artikuluaren erreferentzia nagusia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa da eta beste administrazio publikoak —Toki Administrazioa eta Estatukoak— azaletik baino ez dira ukitzen.*

## NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN HIZKUNTZ NORMALIZAZIOARI BURUZ

**Juan Ramón Elorz Domezain**

*Nafarroako Gobernuko Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuko  
Zuzendaria*

Artikulu honek BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAkeginiko eskaerari erantzuten dio, Administrazioako Euskalduntze Planen gainean egin gogo duen txostenean parte hartzeko. Edo zehatzago, Nafarroako ikuspegia eta errealitatea erantsi nahi dio gaur egun Hego Euskal Herrian diren administrazio publikoen multzoari.

Inoren eta inongo talderen asmoz eztabaida edo polemikarik eragin gabe, artikulu honek egungo errealitate politiko administratiboa hartzen du abiapuntutzat. Hau da, analisiaren esparrua Nafarroako Foru Komunitatera eta bertan egin diren edo egiten ari diren hizkuntz normalizazioko politiketara mugatzen da uneoro.

Sarrera labur hau amaitzeko, argi utzi nahi nuke Euskararen Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuko zuzendari gisa idazten badut ere, froga daitezkeen datuak ez diren hartan, ematen diren iritziak nire ikuspegiak direla eta ez direla inola ere Nafarroako Gobernuaren iritzi ofiziala edo jarrera.

Hori esanik eta idatzia gutxieneko egitura bat ematearren, atal haue-  
tan banatuko dut: abiapuntua, arauak, analisia eta ebaluazioa, etorki-  
zunerako aurrikuspenak.

## ABIAPUNTUA

Franko ezaguna da denentzat euskarak Nafarroan duen errealitate  
demolinguistikoa eta soziolinguistikoa. Alde horretatik, baditugu zen-  
bait azterlan, partikularrek zein Administrazioek beraiek egindakoak,  
errealitate latz hori islatzen digutenak, nahi genukeen hartatik oso  
urrun, eta nahitaez abiapuntutzat hartu behar duguna gure hizkun-  
tzarako normalizazio prozesua ezartzerakoan.

Hortaz, aipa ditzakegu: Sánchez Carrión, J.M. (1970), *El estado actual  
del Vascuence en la provincia de Navarra*; CIES-HPZN (1990), *Estudio de  
las actitudes de los navarros ante el euskera*; Vilches, Carlos (1992), *Nafa-  
rroako euskarari buruzko ikerketa soziolinguistikoa*; Eusko Jaurlaritza-Na-  
farroako Gobernua (1995), *Euskararen Jarraipena*; HPZN (1995), *Euska-  
raren datu soziolinguistikoa Nafarroan*; Ramos, Rosa (1995), *Nafarroako  
euskararen egoera demolinguistikoa eta funtzionala*; eta beste batzuk, ere-  
mu edo esparru txikiagoetarako eginak eta funtsean toki entitateek  
ordaindutakoak. Zerrendak ez du zehatz-mehatza izan nahi eta be-  
hartuta gaude ahanzi ditugunei barkamena eskatzera.

Beti ere, azterlan horien ondorioz frogatzen da Nafarroako biztanle  
euskaldunak ez direla %16 baino gehiago, baikorrenen arabera. Eta  
zehatzagoak izanik %10-11 inguru izanen lirateke euskal hiztunak eta  
gainerakoa ia-euskalduntzat hartzen den multzo lauso hori. Hau da  
80.000 laguneko taldeaz ari gara milioi erdi bat nafarren artean.

Halaber, nabarmendu behar da euskal hiztun horiek ez daudela de-  
nean berdin banatuak, eremu geografiko oso mugatu eta txikia har-  
tzen dutela baizik, bi ardatzen artean funtsean, Iruña-Gasteiz auto-  
biaren eta Belate barnako Iruña-Frantzia errepidearen artean, alegia,  
gehi lur zerrenda txiki bat Pirinioetatik hurbil. Horrekin batera, eus-  
kaldun guneak biztanle dexenteko hirietan, Iruñerrian batez ere. Be-  
rebiziko garrantzia du nafar euskaldunen talde handiena Iruñean iza-  
teak. Euskaldunzaharren, gehienak eskualde euskaldunetik etorriak,  
eta euskaldunberrien artean, 30.000tik gorako euskal hiztun egiten dute  
Iruñean. Fenomeno horrek interes handia du kontuan hartzen badu-  
gu Iruñean kokatua dela Gobernua eta beraz, Administrazioako Zerbi-  
tzu Nagusiak ere.

---

**«Berebiziko garrantzia  
du nafar euskaldunen  
talde handiena Iruñean  
izateak.**

**Euskaldunzaharren,  
gehienak eskualde  
euskaldunetik etorriak,  
eta euskaldunberrien  
artean, 30.000tik  
gorako euskal hiztun  
egiten dute Iruñean»**

**«Horrenbestez, euskara Nafarroan gaur egun gutxiengo baten hizkuntza da, hiztun kopuruaren eta eremu geografikoaren arabera, —baita minorizatua ere—, jakina, baina hedapen bidean, onartua gizartean eta botere publikoei tratu egokia eskatzen ari zaiena, hau da, hiztunaren gutxieneko eskubideak bermatuko dituen babes eta bultzada»**

Esandakoaren ondorioz, begi bistakoa da eskualde euskaldunean eta Iruñerrian daudela hiritarren eskaera nagusiak Administrazioak bere zerbitzuak euskaraz eskain ditzan.

Bestalde, asko esan eta idatzi da Nafarroako deseuskalduntze prozesuaren gainean. Gai horretan sakondu gabe, ez baita artikulua xedea, oinarritzko bi ezaugarri aipa daitezke prozesu honetan, oro har onartuak:

- Euskarak izandako galera bizkorra XIX. mendetik aitzina eta, batez ere, Espainiako Gerra Zibilaren ondoren.
- Beste arrazoi garrantzitsuez gain —gaztelaniazko irakaskuntza, administrazio erdalduna, famili transmisioaren galera, etab.— euskarak estatus soziala galduta ekarritako ondorio larriak, gutxietsi izana, baserriarren hizkuntza arlotetzat hartzea, mundu modernorako balio ez duena. Egoera hori izanik, pentsa liteke Administrazio Publikoan normalizazioa nahi izatea gogo hutsa besterik ez dela, oinarri errealik gabea eta beraz huts egitera behartua. Hala ere, lehen aipatu azterlanetatik eta hiritarrak kalean sumatzen duenetik, argi dago, oro har eta salbuespenak salbuespen, azken urteotan joera irauli egin dela. Hau da:
- Galera prozesua gelditu egin da eta euskal hiztunen kopurua ez doa behera, mantendu egin baita eta berreskuratzen hasi.
- Euskarak gizartean duen kontsiderazioak buelta eman du, orain euskaldun izatea ongi onartua dago gizartean. Eta gainera, hizkuntzak erakutsi du gai dela komunikazio esparru guztietan aritzeko. Hor, erabakigarria izan da euskara batua.

Horrenbestez, euskara Nafarroan gaur egun gutxiengo baten hizkuntza da, hiztun kopuruaren eta eremu geografikoaren arabera —baita minorizatua ere—, jakina, baina hedapen bidean, onartua gizartean eta botere publikoei tratu egokia eskatzen ari zaiena, hau da, hiztunaren gutxieneko eskubideak bermatuko dituen babes eta bultzada. Azken batean, hizkuntz normalizazioa eskatzeko moduan dago arlo guztietan eta bereziki, Administrazio Publikoen esparruan.

## ARAUAK, ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Orain, maila garrantzitsuko lege xedapenak aztertuko ditut, euskara administrazioan normalizatzeko eskaera hori ofizialki arautu dutenak.

a) Abiapuntua Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari

buruzko 13/1982 Lege Organikoa dugu, honako hau dioena 9. artikuluan:

«1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

2. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru Lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza honen irakaskuntza ordenatuko du.»

Lege Organiko horren garrantzia erabakigarria da, alde batetik euskararen ofizialtasuna Nafarroan, lehenbiziko aldiz, deklaratzeko betebehar eta ondorio guztiekin. Eta bestetik, ofizialtasun hori foru lurralde batera mugatzen du, hizkuntz eskualdeen printzipioa ezarri. Hori ona edo txarra den alde batera utzita, ondorio praktikoa ugari ekarri ditu. Horrela, hizkuntz eskubidea eskualdeka ezartzen du eta erabakigarria da kokaera geografikoa administrazio bulegorako edo eman beharreko zerbitzurako.

b) Prozesu diakroniko bati jarraituz, hurrengo Legea, aurrekoaren ondorengo garbia, «Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea» da, funtsezko helburu hauek aldarrikatzen dituen:

«Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

Euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.»

Hiru hizkuntz eskualde ezartzen dira Nafarroan, euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna, bakoitza osatzen duten udalerriak zehazten dira eta haietako euskararen erabilera arautzen. Erregulazio hori argi samarra da eskualde euskaldunerako eta betebeharrak sortzen dizkio Administrazioari.

Alabaina, eskualde mistoan eta ez-euskaldunean hiritarrari eskubidea aitortu baino ez dio egiten, euskaraz aritzeko duena Nafarroako Administrazio Publikoekin iharduteko.

Halaber, jarraibideak ematen ditu toponimia nagusi eta xeheko izenei buruz, Nafarroako Aldizkari Ofiziala euskaraz argitaratzeko betebeharra finkatzen du, itzulpen ofizialeko administrazio unitatearen so-

---

**«Hiru hizkuntz eskualde ezartzen dira Nafarroan, euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna, bakoitza osatzen duten udalerriak zehazten dira eta haietako euskararen erabilera arautzen. Erregulazio hori argi samarra da eskualde euskaldunerako eta betebeharrak sortzen dizkio Administrazioari»**

**«Lege horri ez zaio eman zezakeen guztia atera eta egun, 1995.ean, gerriko estuegia bihurtu dena zabaldu behar da, aurrerakoi jokatzuz. Oraingo Gobernuaren programan berrikuntza hori sartuta dago, irakaskuntzari dagokionez behintzat»**

rrera agintzen eta Titulu oso bat eskaintzen dio irakaskuntzari. Hemen, berriz ere, eskualdeka banatzen du euskararen eta euskarazko irakaskuntza, ondorio praktiko argi batekin: nahitaezkoa da euskara irakastea eskualde euskaldunean eta borondatezkoa beste bietan, eta bitartean, borondatezkoa da euskarazko irakaskuntza eskualde euskaldunean eta mistoan eta ez da aipatzen eskualde ez-euskaldunerako. Azken hori nire ustez interpretazio murrizgarria izan da eta egin zitekeenetako bat besterik ez, eskualde ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan D eredua ez eskaintzea ekarri duena, eskualde horretako ikastetxe pribatuetan, ikastoletan alegia, onartu egin den bitartean, besterik iruditutako arren Nafarroako Gobernuak urteko aurrekontuetako dirulaguntza jaso baitute.

Euskarari buruzko Lege horrek suposatu duenaren balorazioa oso ezberdina da aukera politiko edo sozial batetik edo bestetik egin. Alabaina, nire iritzian, aldarrikatu eta bederatzi urte beranduago, elementu baliotsua izan dela uste dut aurrerapena ekarri duena euskararen normalizazioan, batez ere kontuan hartzen bada zein garai sozial eta politikotan sortu zen. Lege horri ez zaio eman zezakeen guztia atera eta egun, 1995.ean, gerriko estuegia bihurtu dena zabaldu behar da, aurrerakoi jokatzuz. Oraingo Gobernuaren programan berrikuntza hori sartuta dago, irakaskuntzari dagokionez behintzat.

Orain artekoa, Legearen ezaugarri nagusien analisi oso azalekoa da, jakina, baina ez du galarazten haren artikuluen azterlan zehatzagoa egitea, baita haren ondorioena ere, une eta toki egokian.

d) 159 / 1988 Foru Dekretuak euskararen sarrera eta erabilera arautu zituen *Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan*. Euskarari buruzko Legean emandako jarraibideei segitu zien, aipatu direnei alegia, hizkuntz eskualdeei eta horietako bakoitzean izan daitezkeen ereduak dagokienez.

Oinarrizko printzipio batzuk finkatzen ditu, hala nola, borondatezko-tasuna, norberaren eskubidearekiko begirunea eta gurasoek egiten duten aukerarekiko, gutxieneko ratioak, eskualde euskaldunean izan daitezkeen salbuespenak, leku aldaketak eta dirulaguntzak.

Kapitulu bat bada irakasleei eskainia, hezkuntza administrazioari ahalmena ematen diona ikastetxe publikoetako plantilen eta irakasle lanpostuen osaketa finkatzeko, haietan nahitaezko baldintza euskaraz jakitea bada. Baldintza hori EGA titulua edo baliokide bat izatea da. Irakasleak lanpostu horietara egokitzeko bost urteko epe bat (iragan

dena) arautzen da, egokitzapenak onartzen dira eta irakasleen euskalduntze prozesua arautzen (birziklatzea) eta, beti ere, Dekretuak ukitutako irakasleek eskuratutako eskubideen errespetoa finkatzen da.

Halaber, Dekretuak euskararen erabilera arautu zuen Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanetan, komunikazioetan, inprimaketan, etab.

159 / 1988 F.D. honen aplikazioaren ondorio garbienak maila ez-unibertsitarioetan euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren eskaerari emandako erantzuna izan da, ikastetxe elebidunen sarea sortu izatea eta Nafarroako Foru Administrazioan, lehendabiziko aldiz, euskaraz jakitera behartzen duten plantiletako lanpostuak agertzea.

Bidezko da gogoratzea etorri diren Gobernuen jarraibidea ikastetxe elebidunak sortzea izan dela, gaztelaniazko eta euskarazko ereduak elkarren ondoan, ahal izan den neurrian. D eredu bakarra duten herriak dira salbuespena eta ikastetxe pribatuak, jakina, ikastolen sarekoak ia denak. Baina, Hezkuntza Erreformaren aplikazioak euskarazko ikastetxe elebakarrak ekarri ditu.

Azkenik, aipatzekoa da lehen adierazitako eskualde ez-euskaldunaren salbuespena, non ikastetxe publikoek ez duten baimenik D eredua eskaintzeko.

Hezkuntza Administrazioaren esparruko normalizazioak aurrera egin du Foru Agindu eta Ebazpenekin. Aipatu 159 / 1988 F.D. garatzeko, Euskara irakasgaiaren curriculumara arautu dute hezkuntza maila ezberdinetan, helduen irakaskuntza, EGA tituluak, e.a.

e) 1988. urtean berean, euskara Administrazioan normalizatzeko garrantzi handia duen egintza gertatu zen, *Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia* (HPZN) sortu baitzen Lehendakaritza Departamentuaren barrenean.

Hurrengo legeegintzaldietan HPZNaren eginkizunak arautu dira, berriena 349 / 1995 F.D.aren bitartez. Horrek Lehendakaritza Departamentuaren egitura organikoa ezarri du eta V. Kapituluan HPZNak bete beharreko eginkizunak adierazi. Oso luze joko luke gai honi buruzko eginkizun guztiak aipatzen hasteak, HPZNaren oinarritzko guneetako bat osatzen badute ere, eta beraz eta adibide moduan, garrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditut:

---

**«159/1988 F.D. honen aplikazioaren ondorio garbienak maila ez-unibertsitarioetan euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren eskaerari emandako erantzuna izan da, ikastetxe elebidunen sarea sortu izatea eta Nafarroako Foru Administrazioan, lehendabiziko aldiz, euskaraz jakitera behartzen duten plantiletako lanpostuak agertzea»**

---

**«Ikus daiteke Foru  
Administrazioa  
euskalduntzeko arloan  
HPZNari emandako  
eginbeharra koordinatu  
eta aholku ematea dela,  
eta nahi bada, bultzatu  
eta gidatzea, eta  
Departamentuek  
beraiek betearaziko  
dutela»**

«- Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileek euskararekiko duten ezagupena gero eta handiago izan dadin irizpideak finkatzea eta horrexetarako behar diren erabakiak gauzatzea.

- ... Nafarroako Administrazio Publikoen hizkuntz normalizaziorako plan eta ekintzak aztertu eta ebaluatzea.

- Hizkuntza Politikari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen artean, koordinazio eta aholkularitza organo gisa jardutea, bereziki plantila organikoak finkatzeko hizkuntz eskakizunak egiteari dagokionez.»

Ikus daiteke Foru Administrazioa euskalduntzeko arloan HPZNari emandako eginbeharra koordinatu eta aholku ematea dela, eta nahi bada, bultzatu eta gidatzea, eta Departamentuek beraiek betearaziko dutela. Gainerako administrazio publikoei dagokienez, aipamena orokorragoa da:

- «Toki Administrazioen eta Nafarroan Estatuak duen Administrazioaren hizkuntz plangintza prestatzen laguntzea.»

HPZNaren egituraren barrenean, aipatzekoak dira Programazio Atala eta Itzulpen Atala (batez ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren itzulpena egiteko) eta Prestakuntza Bulegoa. Azken hori, «Euskaltegi» izenez ezaguna, 149/1991 F.A.ren bitartez sortu zen eta bere lana Nafarroako Administrazio Publikoetako langileak euskaraz prestatu eta gaitzeko plan eta iharduerak sortu eta betetzea da.

f) Hona beste erregulazio interesgarri batzuk hizkuntz normalizazioan:

- 16/1989 F.D., eskualde euskalduneko toponimoen izen ofizialak finkatzen dituenak. Dekretu horren ondotik beste batzuk etorri dira, eskualde mistoko herrien (Pamplona / Iruña, Estella / Lizarra, etab.) izen elebidunei buruzkoak, eta Nafarroako herri guztien toponimia xehearen ofizialtasuna ekarri dutenak. Arlo honetan, egiteko dago eskualde mistoko gainerako herrien izenak eta eskualde ez-euskaldunekoak ofizial bihurtzea. Lan horri laster emanen zaio hasiera, Euskaltzaindiaren lankidetzarekin onartutako toponimia guztian bezala.

- 195/1993 F.D., ordu eta diru konpentsazioak eguneratzen dituenak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen euskarazko ikastaroetarako.

- 347/1993 F.D., eskualde euskaldunear, Osasunbidearen plantilako zein lanpostutan jakin behar den euskaraz ezartzen duena.

g) Toki Administrazioari dagokionez, 9/1990 F.D. aipatu behar da, Nafarroako toki entitateentzako laguntzak arautzen dituen Euskarari buruzko Foru Legea garatzeko programetarako. Laguntza izan dezaketen ihardueren artean, honako hauek aipatzen dira:

- Langileak prestatu eta birziklatzeko ikastaroak, gero eta gaitasun handiagoa izan dezaten euskaraz aritzeko.
- Toki entitatearen funtzionamenduak sortutako dokumentazioaren itzulpena egitea.
- Errotulazio elebiduneko proiektuak.
- Azterlan soziolinguistikoak egitea.

F. D. horretan xedatutakoari jarraituz, urtero egiten da deialdia Nafarroako toki entitateei laguntza emateko haien langileen euskalduntze programetan. 151/1995 Ebazpena izan da azkena.

Aipatu behar da ia laguntza guztiak eman egiten direla, eta beraz, Nafarroako Gobernuak ordaintzen dituela; gainera, HPZNak aholkua ematen die Udalei euskalduntze prozesu eta mota egokienak prestatzeko. Hala ere, batzuetan benetako udal plangintza falta dela sumatzen da, birziklatze planak gehiegi loturik baitaude langileen borondateari, eta horren ondorioz, langileak euskalduntzen egindako aurrerapenak ez dute beti behar bezalako etekina eman.

Helburu inportante bat Toki Administrazioari euskararen normalizazioan *Udaletako Euskara Zerbitzuak* (UEZ) sortzea izan da. Gaur egun 17 UEZ daude eskualde euskaldun eta misto osoa hartzen dutenak. Haien funtzionamendua eta finantzazioa Nafarroako Gobernuak eta Toki Entitateek (Udalak edo Mankomunitateak) 1994.ean sinatutako Lankidetzaren hitzarmen batek arautzen ditu.

UEZen lana ezinbestekoa da Toki Administrazioaren esparruan euskara normalizatu eta berreskuratzeko prozesu guztian. Haien eginkizunak aipatu Lankidetzaren hitzarmenean daude deskribatuta eta hara igortzen ditut gaia sakondu nahi dutenak.

h) Nafarroan kokatua den *Estatuko Administrazioari* dagokionez, askoz atzeratuago daude hizkuntz normalizaziorako prozesuak eta beraz, ez dago aipa daitekeen goi mailako arauteriarik.

Dena den, aipatu behar da urtero Administrazio horretako funtzionario batzuek, kopurua inportantea da, euskarazko prestakuntza ikasta-

---

**«Batzuetan benetako udal plangintza falta dela sumatzen da, birziklatze planak gehiegi loturik baitaude langileen borondateari, eta horren ondorioz, langileak euskalduntzen egindako aurrerapenak ez dute beti behar bezalako etekina eman»**

**«Dena den eta badaezpadako neurri gisa, 1.3 artikuluan adierazten da "Foru Dekretu honen aplikazioa pixkana-pixkana eginen da, beti ere Administrazio bakoitzak aldioro dituen ahalbideen arabera"»**

roak egiten dituztela HPZNko Euskaltegian, eta badela protokolo bat Nafarroako Gobernuarekin batera lan egiteko, non Estatuko Administrazioak diruz ordaintzen baitu bere langileen birziklatzea.

i) Amaierarako utzi dut 135/1994 F.D., euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako Administrazio Publikoetan, eta hori, bai argitaratu berria delako, bai edukiak garrantzia duelako.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Toki Administrazioak dira bere aplikazio eremua, eta hauek, bere funtsezko helburuak:

«Eremu euskaldunean, berdin erabili ahal izatea hizkuntza ofizial bata nahiz bertzea, laneko nahiz herritarra zerbitzatzeko hizkuntza izanik. Eremu mistoan, eremuko herritarrek beren hizkuntz eskubideak erabiltzea bermatzeko behar diren langileak euskaraz prestatzea. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu nagusietan, erabiltzaileak halaxe eskatzen duenean, zerbitzuak euskaraz ematea bermatzeko aski diren administrazio zirkuitu elebidunak ezartzeko behar hainbat langile prestatzea».

Aipatu helburuak lortzeko, urtebeteko epea ematen die Foru Administrazioako Departamentuei behar diren hizkuntz planak prestatzeko, eta HPZNari koordinatzaile eginkizuna ematen dio Departamentuetan hizkuntz plangintzaren prestakuntzari dagokionez.

Toki Administrazioaren arloan gutxiago eskatzen du, aipatu besterik ez baitu egiten Toki Administrazioek beraien planak prestatu ahalko dituztela, haien iharduketa esparruaren barrenean. Eskumen banaketatik, Nafarroan kokatutako Estatuko Administrazioa ezin da Foru Dekretu baten bitartez arautu. F.D. honek Lehenbiziko Xedapen Gehigarrian eranstean du Nafarroako Gobernuak Estatuko Administrazioarekin lan eginen duela neurriak hartzeko, Nafarroan kokatutako Estatuko Administrazioak aurrera egin dezan euskararen erabileraren normalizazioan.

Dena den eta badaezpadako neurri gisa, 1.3 artikuluan adierazten da «Foru Dekretu honen aplikazioa pixkana-pixkana eginen da, beti ere Administrazio bakoitzak aldioro dituen ahalbideen arabera.»

Erregulazio horretan bi kontzeptu interesgarri ageri dira, begi bistako garrantzia dutenak Administrazioaren hizkuntz normalizaziorako, zerbitzu nagusiak eta administrazio zirkuitu elebidunak, hain zuzen. Dekretuak berak dioen bezala, zerbitzu nagusiak dira, diren tokian dau-

dela, Nafarroako biztanle guztiez ardua dutenak. Eta administrazio zirkuitu elebiduna, Foru Administrazioako zerbitzu nagusiek eduki behar duten giza baliabideen eta materialen multzoa, zerbitzuak euskaraz eman daitezen bermatzeko horren eskaera egiten duten erabiltzaileei. Hizkuntz egitura legez eskualdeka antolatua izanik eta administrazio zerbitzuen zati handi bat hiriburuan, Iruñean, hau da, eskualde mistoan egonik, euskarazko zerbitzuak emateko eskualdez gaindiko erregulazioa egitea aldeko ondorio praktiko argiak dituen urrats handia da. Izan ere, euskarazko harrera, hots, hizkuntz eskubidea, hiritarri edo organo edo erakunde eskatzaileari igortzen zaio eta ez dago zerbitzua ematen duenaren kokaera geografikoaren menpe, beti ere zerbitzu nagusiei buruz ari garela. Gaia behar bezala taxutzeko, pentsatu suhiltzailez, foruzainez, ogasunaz eta errentaz, bekez, ospitale nagusiez, eta abar ari garela.

F.D.aren alderdi garrantzitsuenetan sakonduz, euskararen erabilera Administrazioan zehazten duela esan behar da, hau da, aplikazio eremua, barne erabilera, erakundeen arteko harremanak, administratua-  
rekiko harremanak, irudia, ohartarazpenak eta argitalpenak, beti ere, hiru hizkuntz eskualdeen arabera.

III. Tituluaren gaia euskararen derrigortasuna eta balorazioa da lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan aritzeko. Administrazioari betebeharra jartzen dio plantila organikoetan adierazteko zein lanpostutan euskaraz jakitea baldintza berariazkoa den eta zeinetan merezimendu kualifikatua. Eremu euskaldunean du eragina, eskualde mistoan betebeharrak horiek ahalezkoak baitira («bakoitzak bere plantila organikoan adieraz dezake...») eta eskualde ez-euskaldunean ez da aipatzen.

Beti ere, euskaraz jakitea derrigorrezkoa den lanpostuetan ari direnek eskuratutako eskubideak errespetatzen dira.

Euskaraz jakitea derrigorrezkoa denean, bi kategoria egiten dira. A, B, C eta D mailako lanpostuetarako EGA titulua edo baliokide bat eskatzen da, E mailako lanpostuetarako Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Oinarrizko Zikloaren Ziurtagiria eskatzen da. Bi kasuetan, ziurtagiri akademikoaren ordez proba bat gainditu beharko da, izan gaia eskatzen zaion hizkuntz maila duela frogatzeko. HPZNaren lan-kidetza eskatzen da proba horiek egin eta langileen euskarazko gaitasun eta prestakuntzaren ikastaroak antolatzeko.

Xedapen gehigarrietan, Osasunbideari atxikitako langileen salbuespena

---

**«Hizkuntz egitura legez eskualdeka antolatua izanik eta administrazio zerbitzuen zati handi bat hiriburuan, Iruñean, hau da, eskualde mistoan egonik, euskarazko zerbitzuak emateko eskualdez gaindiko erregulazioa egitea aldeko ondorio praktiko argiak dituen urrats handia da»**

**«Dekretu honek suposatzen duena gainerik baloratuz, alde positiboan, batez ere agertu izana aipatu behar da. Lehenbiziko aldia baita erregulazio argi bat agertzen dela euskararen erabilerari buruz Administrazioan»**

eta irakasle ez-unibertsitarioena ezartzen da, F.D.tik kanpo gelditzen baitira, haien berariazko arauari loturik, eta Xedapen Iragankorrean epe zehatzak ematen dira errotulazioak eta erabiltzen diren paper guztiek Dekretuak eskualde bakoitzerako ezarritako baldakizunak bete ditzaten, urtebete eta hiru urte, hurrenez hurren.

Dekretu honek suposatzen duena gainerik baloratuz, alde positiboan, batez ere agertu izana aipatu behar da. Lehenbiziko aldia baita erregulazio argi bat agertzen dela euskararen erabilerari buruz Administrazioan, betebeharrak jakin batzuk eta epe zehatzak ematen dituen erabiltzaileak Administrazioarekiko harremanetan euskaraz aritzeko duen eskubidea bermatu eta administrazioen arteko erabilera arautzeko, alderdi guztietara iritsiz eta denak zehaztuz: errotulazioa, paperak, idazkiak, prestakuntza, hizkuntz mailak, etab. Hori guztia, zerbitzu nagusietako zirkuitu elebidunek suposatzen duten aurrerapena ahan-tzi gabe.

Bestaldean, aipatu behar da arazo nagusia F.D.an finkatutakoa erreali-tate jakinetan gauzatzea izan dela. Departamentuaren hizkuntz pla-nak gauzatzeko urtebeteko epea eman zen, hain zuzen ere iragan dena plan horiek prestatu gabe, eta hortaz, eta adibide moduan, euskaraz jakitea eskatzen den lanpostuei dagokienez, geldituta dago plan ho-rien zain, plantila organikoetan islatu gabe. Gainera, tituluan Nafa-rrako Administrazio Publikoak aipatzen badira ere, praktikan Foru Komunitateko Administrazioa mugatzen da eta beste biak, Toki Ad-ministrazioak eta Estatukoak, batere zehaztu gabe geratzen dira euskararen normalizazio prozesuetan. Azkenik, eta ahalik eta ikuspegi objektiboena ematearren, ez da ahan-tzi behar iritzi batzuen arabera Dekretua lotsakorra dela eta ahaleraz betea (ahalko du), eskakizun garbiak izan beharrean.

## ETORKIZUNERAKO AURRIKUSPENAK

Nafarroako Administrazio Publikoetako hizkuntz normalizazioan aurrera egiteko aukera emanen duten ekintzak ezartzerakoan, kome-nigarri da orain arte esandakoa laburbiltzea. Lorpen eta konpondu gabeko arazoen balantze honetan, hauek dira nire ustez argiune eta itzal nagusiak:

a) Lorpenak:

- Deseuskalduntze prozesua gelditu eta hiztunak irabazteko prozesua-

ren abiatze motela.

- Euskararen estatus eta iritzi soziala hobetzea.
- Euskarazko administrazio zerbitzuen benetako eskaera.
- Arauzko erregulazioa, hobeia izan badaiteke ere normalizazio prozesuak hasteko bide ematen duena.
- Prozesu horretan parte hartzen duten erakundeen sorrera: Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Udaletako Euskara Zerbitzuak, Itzulpen Atala, Euskalduntze Zentroak.
- Aurrerapen nabarmena toki entitate batzuetan, Hezkuntza Departamentuan, eta partziala Osasunbidean.
- Behar adinako azterlan soziolinguistikoak oinarri teorikoa eta konponbide praktikoak emateko.
- Aurrerapen garbia toponimiaren erregulazioan eta normalizazioan.

b) Konpondu gabeko arazoak:

- Plangintzarik gabeko euskarazko prestakuntza, langileen borondateari lotua.
- Euskarari buruzko Foru Legean ezarri zonifikazioaren ondoriozko arazoak.
- 135/94 F.D. an xedatutakoa ez betetzea eta beraz, hizkuntz planik ez izatea Foru Administrazioako Departamentuetan.
- Ondorioz, hizkuntz zehaztapenik gabeko plantila organikoak (Hezkuntza salbu).
- Erregulazio gutxi eta plangintza falta Toki Administrazioako normalizazio prozesuetan (salbuespen ohoregarriekin)
- Atzerapen nabarmena Estatuaren Administrazioari dagokionez.
- Gabezia nabarmenak instituzioen irudiari dagokionez: errotulazioa, inprimakiak, publizitatea, etab.
- Arazoek beren horretan jarraitzea bide seinalizazioan.

Gauzak horrela, lehenbiziko eta funtsezko urratsa 135/1994 F.D. an erabakitakoa abiaraztea litzateke, eta kontuan hartzen badugu «gutxienekoen» gainera Dekretua dela, bertan adierazitako helburu guztiak osoki betetzera jo beharko litzateke. Lortzeko, *iharduketa proposamen* zehatz eta deliberatua egin beharko litzateke, hasiera batean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa hartuko lukeena, gero beste Administrazioetara hedatzeko. Proposamen horrek funtsean hiru alderdi ukituko lituzke:

- Administrazio Zirkuitu Elebidunak (AZE).
- Euskararen erabilera eskualde euskaldunean eta mistoan.
- Irudia, errotulazioa eta paperak.

---

**«Departamentuaren hizkuntz planak gauzatzeko urtebeteko epea eman zen, hain zuzen ere iragan dena plan horiek prestatu gabe, eta hortaz, eta adibide moduan, euskaraz jakitea eskatzen den lanpostuei dagokienez, geldituta dago plan horien zain, plantila organikoetan islatu gabe»**

**«Ahalik eta ikuspegi  
objetiboena ematearren,  
ez da ahanzi behar  
iritzi batzuen arabera  
Dekretua lotsakorra  
dela eta ahaleraz bete  
(ahalko du), eskakizun  
garbiak izan beharrean»**

Lehenbiziko alderdiari dagokionez, idazki honen 2.-h) atalean definitu dira AZE direlakoak, gogoratu zerbitzu nagusiez ari garela, Komunitateko biztanle guztiei zerbitzu orokorra ematen dieten horietaz alegia. Informazio fluxuak eta egiten duen bidea zehaztu beharko lirateke, jasotzen denetik —ahoz (buruz buru, telefonoz), idatzita—, haren igorlea —partikularra, ofiziala, zein eskualdetik—, irtetzen den arte —ahoz, gutunez, ziurtagiriz,...— barne bidea eta erabakia hartu arte. Eta hortik aitzina, behar diren langileak eta baliabideak zehaztea informazio horri euskaraz erantzuteko eta informazioa euskaraz sortzeko. Helburu hori lortzeko iharduketa hauek bederen hartu behar dira kontutan: AZEak antolamendu unitatetan deskribatu, zein lanpostutan behartzen den euskaraz jakitera, haiek plantila organikoetan sartu, lanpostu horiek baldintza betetzeaz gain hala nahi duten langileei eman, eta azkenik, plantila elebidunak enpleguaren eskaintza publikoaren bitartez eta langileak euskaraz prestatuz betetzea, ezinbestekoak liratekeen kontratazio berriei gain.

Bidea ez da erraza eta deskribatutako prozesuari zenbait iharduketa erantsi behar zaio, alde batetik, behar duen gizarte kontsentsua izan dezan eta bestetik, legezko babes. Hau da, langileekin negoziatu beharko litzateke Dekretuaren aplikazioaren ondorioz sortuko litzatekeen lan egoera berria, batez ere, lortutako eskubideak, lekualdatze lehiaketak, hutsik geratzen diren lanpostuak nola bete, etab. Era berean, legez arautu behar litzateke, *ex novo* edo dauden arauak egokitu, puntu hauek bederen: ordu eta diru konpentsazioak euskaraz prestatzeagatik, hizkuntz eskakizunak, euskalduntze motak eta aipatu lan gorabeherak.

Bigarren alderdia euskararen erabilera da eskualde euskaldunean eta mistoan, Dekretuan argi araututa dagoena. Hiritarrari eskubidea bermatu behar zaio, Administrazioarekiko harremanetan euskaraz ari zeko duena, eta administrazioen beraien barne arauak ere arautu behar dira hizkuntza aldetik. Hemen, euskaraz jakitea zein lanpostutan den baldintza zehaztu beharko litzateke, eta hortik aitzina, AZEtarako adierazitako prozesu berdina izanen litzateke, beraz ez dut errepikatuko.

Garrantzitsutzat jo ditudan alderdietako hirugarrena, administrazioak erabiltzaileei eta gizarteari oro har ematen dien irudia da, nire us-tez lehenik eta behin, elebiduna izan beharko lukeena agerpen guztietan. Iharduketa eremua zabala eta ezaguna da publikoa delako, eta hiru puntutan bereziki du eragina: errotulazioa (barnekoa, kanpoko, identifikazio pertsonala edo bulegoetakoa, etab.), bide seinalizazioa

(lehen mailakoetan zein bigarrenekoetan) eta paperak (inprimakiak, orriburuak, bisita txartelak, agurrak, ziurtagiriak, etab.). Ez da nabarmendu beharrik azken urteotan irudiak hartu duen garrantzia, beraz, funtsezkoa da eremu honetako iharduketa, izan ere, alde batetik euskaldunengana iritsiko litzatekeelako eta bestetik Administrazioaren irudi elebiduna emanen lukeelako eta euskararen duintasuna erakutsiko gizarteari, eta gainera, kostu txiki samarreko iharduketa delako, bai denboran, bai dirutan.

Aurreko esperientziek erakusten dute aipatutako proposamena, edo asmo bertsuko beste bat, abiarazteak oztopo asko topatzen dituela, hortaz, eta nire iritzian, erakundeen bultzada egokia behar litzateke, esate baterako, Parlamentuaren erabaki bat edo Nafarroako Gobernuaren beraren erabakia.

Bestalde, artikulua gehiago ez luzatzearren, ez ditut aipatu iharduketa bakoitzeko arduradunak eta zein epetan egin beharko liratekeen. Oro har, uste dut Foru Komunitateko Departamentu bakoitza dela zuzeneko arduraduna iharduketa guztietan, HPZNaren laguntza eta aholkuarekin, Funtzio Publikoaren eta Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiaren esku egonik langileria buruzko gaiak. Epeei dagokienez, prozesuak oraintxe abiatu beharko luke eta, zehazten hasi gabe, argi dago oraingo legegintzaldia dela hura erabat gauzatzeko denbora tarte. Hau da, 1995-1999 bitarte. Horrek ez du galarazten erraz egin daitezkeen iharduketa batzuk oraintxe bertatik abiaraztea, hala nola, errotulazioa, paperak, etab.

Diseinu hau guztia, zirriborroa hobeki esan, funtsean Foru Komunitateko Administrazioari dagokio, hasieran aipatu dudak bezala. Ausardia izanen litzateke nire aldetik, Nafarroako Gobernuko HPZNko teknikaria naizenez gero, autonomia osoa duten beste administrazioei euskara normalizatzeko egin behar duten bidea adieraztea, ez baitaukat horretarako inongo eskumenik. Dena den, Nafarroako gainerako Administrazio Publikoetan ere, hau da, Toki Administrazioan eta Estatu-tukoan, hemen egindako proposamenak aplikatu ahalko lirateke, haien inguruneari egokitzuz, jakina.

Hementxe bukatzen dut, BATSOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAk eskatutakoa bete eta gaia aberastu dudalakoan, euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan normalizatzeko dudak ikuspegia adierazita.

---

**«Lehenbiziko eta funtsezko urratsa 135/1994 F.D.an erabakitakoa abiaraztea litzateke, eta kontutan hartzen badugu 'gutxienekoen' gainerako Dekretua dela, bertan adierazitako helburu guztiak osoki betetzera jo beharko litzateke»**